



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

...UN CAMINO HACIA
UNA COMARCA MÁS
RESPONSABLE Y
COLABORATIVA...

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

...ARDURA ETA LANKIDETZA
HANDIAGOKO ESKUALDERANTZ
BIDEAN MURGILDUTA...



ERRONKEI ERANTZUTEA.

Gaur egun denok dakigu hainbat erronka garrantzitsu ditugula aurrean eta horiei aurre egin beharra dagoela. Batzuk bakoitzak bere aldetik konpon ditzake. Beste batzuek, ordea, **kolektiboki aurre eginda** bakarrik izango dute konponbidea.

Debagoieneko Mankomunitatea plataforma bat da eta bertatik lan egin daiteke gure eskualdeak eta bertan bizi garenek hobeki prestatuta egon eta **erronkarik esanguratsuenetako** biri erantzun ahal izateko: gure lurraldearen ingurumen-iraunkortasuna eta garapen sozio-ekonomikoa.

Bi **eremu konplexu** eta gero eta **zorrotzagoak**.

INGURUMEN-ERRONKAK

Natura-baliabide mugatuak

Gutxi gorabehera jota, 9.000 milioi pertsona izango gara 2050ean eta hiru aldiz baliabide gehiago beharko dugu.

Europar ingurune zorrotzagoa hondakinen kudeaketan

Lur planeta bakarra daukagu; irtenbide bakar legez, dagoeneko Europak onartu du birziklatze-tasa handiak ezartzen dituen araudia.

Suntsitze tratamenduen kostuak gorantz

Hondakinak zabortegira edo errauste planta batera bidaltzearen aukerak kostu ekonomiko handia du, eta bikoizteraino ere irits daiteke. Gainera, baliabide bihurtuz gero aprobetxagarri izan daitezkeen gaiak ezabatzea esan nahi du.



ERRONKA SOZIO-EKONOMIKOAK

Indize ekonomikoak igotzea

Eskualdeko jarduera ekonomikoari ere eragin dio krisialdi orokorrak. Hori argi eta garbi islatzen dute enplegu-tasan izandako aldaketak eta negozio berrien sorreran antzeman den geldotzeak.

Formula berriak sustatzea

Ingurunea aldatu egin da eta egoera konplexu eta globalizatuaren aurrean proposamenak garai berrietara egokitu behar dira. Formula zaharrak eguneratu egin behar dira.

DAGOKION ERANTZUKIZUNA BERE GAIN HARTZEN DUEN ESQUALDEA.

Azken 4 urteotan ibilbide luzea egin dugu. Elkarrekin aurre egin diogu erronkari, helburuak hitzartuz eta askotariko errealitateetara egokitutako konponbideak diseinatuz.

Horri esker eta guztion inplikazioari esker, **gaikako bilketaren** batez besteko tasa **BIKOIZTU** egin dugu eskualdean.

2011
%33

2015
%60

Antzuola:
5 informazio jardunaldi.

Arrasate: Hondakinen Kontseiluaren 28 bilera eta informazio saiok auzoz-auzo.

Bergara: 9 parte-hartze jardunaldi, 28 batzar atariz-atari eta 6 bilera orokor.

Oñati: 8 parte-hartze lansaio eta 14 informazio jardunaldi auzoz-auzo.

Aretxabaleta: 4 fasetan garatutako parte-hartze prozesua.

B Egokitzea eta Ikastea

Udalerrri bakoitzak bere errealitatea bizi du, eta nolabait ere moldakorra izan behar du bere erantzunak. Herritarren eta Administrazioaren arteko elkarriketaren ondorioz, gaur egun, hondakinak biltzeko hainbat sistema daude martxan Debagoienean.

Sortu diren eredu ezberdinak diseinatu eta probatuz asko ikasi dugu guztiok, eta balio handikoa da hori malgutasunez erantzuteko tokian tokiko berezitasunei.

NOLA LORTU DUGU?

A Kontzientziatzea eta lankidetzaz

Erronka kolektibo konplexu bati guztion konpromisoaz bakarrik aurre egin dakiok. Debagoieneko udalerrietan informazio-saiok eta topaketak egin dira, eta herritar askoren parte-hartze aktiboa izan da horietan.

C Helburu komuna lehenestea

Birziklatze-indize onak ere helburuaren lehenetasunaz lorturiko adostasun orokorraren emaitza dira. Inork ez du zalantzan jartzen birziklatze-indizeak drastikoki handitu beharrean gaudela. Norbanakoen ezerosotasun, pertzepzio eta aurreiritzien gainetik helburu orokor hori lortzearen balioa konstante bat izan da prozesu osoan.

- A** Atez-ateko sistemaren implementazioa
- MX** Sistema mixtoaren implementazioa
- E** Edukiontzien esleitze sistemaren implementazioa

Eskoriatza: proba pilotu bat, 4 parte-hartze jardunaldi eta 12 formakuntza eta informazio saio.

Elgeta: informazio hitzaldiak.

Leitntz-Gatzaga: informazio batzar bat.

Eskoriatza

Leitntz-Gatzaga

Aretxabaleta

Elgeta

Antzuola

2011

2012

2013

Oñati

2014

Bergara

2015

Arrasate

KOSTU IRAUNKORRAGOEN ALDE EGITEN DUEN EREDUA.

SUNTSITZEAGATIK ALA BERRIZ ERABILTZEAGATIK ORDAINDU?

Hortxe dago gakoa. Beste balio-bizitarik gabe gure hondakinak suntsitzeagatik ordain dezakegu, ala era iraunkorragoan joka dezakegu eta **HONDAKINA = BALIABIDEA** dela ulertu.

Hainbat esperientzia errealek, bai Europa mailan eta bai gure lurraldean, erakusten dute hondakinak biltzeko banakako sistemek jatorrian bereizi edo banatzea errazten dutela eta birziklatze-indize handiagoak lortzen direla.

“Baliabide mugatuaren munduan inbertitu eta lehiatzeko prest daudenek iraungo dute bizirik.”

INGURUMEN ZUZENDARITZA OROKORRA (EUROPAKO BATZORDEA)

ZERGATIK DA SISTEMA IRAUNKORRAGOA?

KOSTUEN BANAKETA

ETXEBIZITZA BATEN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-KOSTUEKIN ALDERATUTA...

HASIERAKO KOSTUAK

INBERTSIOA (BEHIN BAKARRIK)



GAINDITUTA



Informazio-bulegoa



Instalazioak / azpiegitura



Ekipamenduak

- Arkitektoa
- Materialak eta obra

KOSTU OPERATIBOAK

JARDUERA



GORA



Pertsonala



Mantentze-lana



Funtzionamendua



Kanpainak

- Elektrizitatea
- Ura
- Gasa

TRATAMENDU-KOSTUAK

“ZERGETATIK” SARRERETARA

ORDAINDU EGITEN DUGU

KOBRATU EGITEN DUGU



BEHERA



Tratamendu-tasa



Gai birziklatuen salmenta

- Zergak

1. Erraustegia eraiki izan balitz tratamendu-kostuak %45 igoko zirelako.

2. Birziklatzen badugu, hondakinak suntsitzeagatik ordaindu ordez materialak saltzeagatik kobratzen dugulako.

3. Sistema berria implementatu ondoren, nahiz eta kostu operatiboak igo, tratamenduenak jaitsi egiten direlako.

4. Kalitatezko enplegu berriak sortzen ditugulako, eskualdearen mesedetan.

3 LANGUNE EKONOMIA SUSTATZEKO.

Eskualdeko baliabideetan eta esperientzian oinarriturik, aukera dugu ekonomiaren eredu iraunkorrago baten oinarriak ezartzeko.

Garapen Agentziatik uste dugu eredu hori sendotzeko ezinbestekoak diren eremuetan jardutea dela gure ekarpena, elkarlan edo lankidetzazko dinamika berriak sustatuz.

“Ideiak izan eta horiek gauzatzeko gaitasuna duen jendea da eskualde batek izan dezakeen aktiborik indartsuena.”

LANKIDETZAZKO DINAMIKAK

Lankidetzaren eta sareko lanaren bidez bakarrik iritsiko gara eskualdearen eraldaketa benetakoa eta positiboa egitera. Horregatik, datozen urteetan norabide horretan aurrera jarraitzeko konpromisoa mantentzen dugu Mankomunitatetik.

PERTSONAK

Ekintzaitza bultzatzen dugu eta herritarrak prestakuntza- eta enplegu-programen bidez orientatzeko lan egiten dugu.

SEKTOREAK

Nazioartekotze-, lehiakortasun- eta lankidetzazko proiektuak bultzatzea izaera estrategikoa duten sektoreen artean, adibidez, eskualdeko turismoa, energia-eraginkortasuna eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainak eta merkataritza.



HELMUGA KONPARTITUA.

Erronka garrantzitsuak ditugu aurrean, baina historian zehar frogatu dugu ahaleginak batzen eta interes kolektiboen alde lan egiten badakien eskualdea gara.

Garapen Agentzia:

I+G proiektuetara BPGren ehuneko handiena bideratzen duen Gipuzkoako eskualdea gara. Europako batez bestekoa bikoizten dugu.

Urtero titulaziorik gabeko 30 gaztek baino gehiagok birplanteatzen dute beren etorkizuna Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen bidez.

Eta aprobetxa ditzakegun baliabideak ditugu:

- Unibertsitatea eta LHko ikastetxeak
- Berrikuntza Gunea
- Industria-ehun indartsua
- Eragileen arteko lankidetzak-foroak
- Ekimena duten pertsonak

Ingurumena:

Eskualdean gaikako bilketaren batez bestekoa %60 baino handiagoa da.

Benetako aukera eraginkorra sortu da hain iraunkorrak ez diren hondakin-kudeaketako sistemen aurrean.

Irtenbidea eman diogu erronka global bati, eta horrek erreferente bihurtzeko gaitzake beste lurralde batzuentzat.

Disponemos de recursos que podemos aprovechar:
 • Universidad y centros de FP
 • Polo de innovación
 • Tejido industrial potente
 • Foros de colaboración entre agentes
 • Personas con iniciativa

Somos la comarca de Gipuzkoa que mayor porcentaje de su PIB destina a proyectos de I+D. Duplicamos la media europea. Cada año más de 30 jóvenes sin titulación reconducen su futuro a través del Programa de Cualificación Profesional Inicial.

Desarrollo: Agencia de

Hemos aportado una solución a un reto global que nos puede situar como referente para otros territorios.

Se ha generado una alternativa real y eficiente a sistemas de gestión de residuos menos sostenibles.

La media comarcal de recogida selectiva supera ya el 60%.

Medioambiente:

Tenemos retos importantes por delante, pero a lo largo de la historia hemos demostrado que somos una comarca que sabe unir esfuerzos y trabajar por los intereses colectivos.

UNOS RESULTADOS QUE VAN MÁS ALLÁ DE LOS INDICES

Esta claro que los índices son importantes. Ponen números al esfuerzo realizado por todos y todas e indican que hemos asumido la relevancia del objetivo. Pero igual de valioso es todo lo que este proceso de transformación nos está enseñando. Gracias a nuestro aprendizaje otros también podrán avanzar.

INDIZEAK BAINO HARATAGO DOAZEN EMAITZAK

Garbi dago indizeak garrantzitsuak direla. Zenbakiak jartzen dizkiote guztiok egindako ahaleginari, eta helburuaren garrantziaz jabetu gara adierazten dute. Baina baita ere oso baliotsua da eraldaketa-prozesu hau erakusten ari zaigun guztia. Gure ikaskuntzari esker beste batzuek ere aurrera pausoak eman ahal izango dituzte.